

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 20a / 522. zenbakia



**Horra,
gure
Olentzero!**


Olentzero Marrazki Lehiaketako
marrazki irabazlea.
Egilea: Mikel Soto, 5 urte.

KIROL GUNEA: LANAK MAIATZEAN HASIKO DIRA/7 • MUSIKA: GABONETAKO KONTZERTUA BIHAR/15

AZALA: IÑAKI ITURBE. MARRAZKIA: MIKEL SOTO



Eraztuna
TELKAR BITXITEGIA
Ibargarai 2



Levi's jaka eta prakak
CRISTINA JANTZIDENDA
Arruriaga 44



Chic perfumea
AMAIA PERFUMERIA
Barrenkalea 25




Punto Blanco barruko arropa
GALLASTEGI KONFEKZIOAK
San Pedro 15



Nordikas etxeko zapatilak
GALARRETA OINETAKOAK
Irizar 2



Luis Carro soinekoa
GABILONDO PUNTUZKO ARROPA
Irala 5



Eraztuna eta lepokoa
HARAIA ZILARREZKO BITXIAK
Boni Laskurain 4

OPARI BERRI ON!



Lohe pijama
GANTXEGI MERTZERIA
Telesforo Aranzadi 2



Miguel Bellido gerrikoa
ZUBIKUA JANTZIDENDA
Barrenkalea 24



Inovalley proiekioko erlojua
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA OPTIKA
Ibargarai 16

ATREBENTZIAEZPADA/ Gabonetan jokaten dozu loterixan? Eta urtian zihar?



ASCEN AGÜERO
67 urte



ANE MIREN SAGASTA
39 urte



JOSE SALAS
64 urte



ELISEO GARCÍA
65 urte



MARIA JESUS GUTIÉRREZ
60 urte



JESUS SAN MARTÍN
71 urte

Bai, jokatzeko dot, urtero-urtero, gainera. Oin be espe-ro ez neban bat erosi dot. Urtian zihar ez dot apenas jokatzeko, oso gutxi, baiña Gabonetan bai; ohitturia-gaittik izango da.

Askorik ez. Gizonak bai, eta nigatik izango balitz, ez neuke jokatzeko. Gabonez aparte, urtian zihar ez dot bat be jokatzeko. Eta Gabonetan be erregalatzeko izaten da, gehixenbat.

Urte guztian ez dot jokatzeko, baiña Gabonetan, pixka bat bai; mundu guztiak moduan, neure ustez. Gabonetan neuretako hartzen dot, baita alabendako eta billobiandako be.

Bai, jokatzeko dot; gutxi, baiña zeozer bai. Ohitturia-gaittik da, lagunen artian aspaldittik trukatu egitten dogulako Gabonetan loterixia. Baiña urtian zihar ez dot jokatzeko.

Bai, familixa guztiandako hartzen dogu Gabonetan, eta gero, banatu egitten dogu. Numero berdiña hartzen dogu danondako, eta aspaldiko ohitturia da. Urtian zihar, bestela, gutxi.

Bai, jokatzeko dogu. Urteroko ohitturia da, eta, gainera, nahikotxo jokatzeko dogu. Bestela, urtian zihar be jokatzeko dot, baiña gutxiago. Gabonetan bastante gehixago jokatzeko dot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK TORREKUAKO ATZEKO ALDEA, ZIKIN Torrekua auzoko irakurle baten esanetan, garbitzaileek kasu txikia egiten diote etxe blokeen ostean dagoen jolastokiari. Aurreko aldea, errepidera ematen duena, ondo garbitzen dute, baina atzekoari, ikusten ez denez, ez diote kasu handiegirik egiten. Haren esanetan, hura ere garbitu egin behar da, eta kontu handiagoa jarri beharko lukete. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /7

MARRAZKIAK /13

KULTURA /15

Agorrosingo kirolgunea

Agorrosingo kirolgune berriko lehen fasea eraikitzeko lanak 2003ko maiatzean hasiko dituzte.

Artista gaztetxoak

Jardunek eta BERRIGARA-k antolatutako Gabonetako Marrazki Lehiaketako irabazleak.

Argazki erakusketa

Azurrek ehun argazki inguru jarri ditu ikusgai gaztetxean. Era-kusketak *Bergara 2002* du izena.

IRAKURLEAK MINTZO

SAN JUAN ETA BASALGO AUZOETAKO KALTETUAK

San Juango eta Basalgoko auzotarren artean dexteko kezka sortu du Cotones Aguirrezabal dendaren parean, mendi partean, kokatzeko den hormigoi edo porlan planta berriak.

Aipaturiko planta honek ohiko arazoetatik kanpo (hautsa...) badu azpimarratu beharreko berezitasuna: ez duela ia tokirik, eta ondorioz kamioiak Basalگو bidean nahiz Elgetarako bidean pilotatu direla. Zehazki egun bakoitzeko 80 kamioi sartu-irtean ibiltzea espero da.


Kezka areagotzen da Udalak beharrezko baimenak bidertzeko inolako oztoporik jartzen ez duenean.

AMAIA ZABALETA ETA
BESTE HAINBAT KALTETU

BESTE EKESANA

“Film labor bat egitean bilatzen dudana da eguneroko bizitza apurtzea batetik, eta istorio bat kontatzea, bestetik. (...) Telmo Esnalek eta biok aspaldi idatzita dugu film luze bat. istorioa polita da eta ekoizpen etxeetan ibiliak gara galdezka. Egitear egon da, baina, bata dela eta bestea dela, azkenean ez da irten. Presa handirik ez daukagu, egia esan, baina egiteko gogoia bai. ASIER ALTUNA / Zinemagilea 'Gara'/02-12-16

BERAIEK DIÑO E/ Iñigo Alberdi Amasorrain



Gabon Gabonete...

Erros errosete... Heldu direla Gabonak lagunak! Urteroko gauza berdinak entzun, esan, erosi eta abestuko ditugu. Urtero errepikatzen den erritual baten sartuko gara gehienok. Asko dira Gabonak gustuko ez dutenak, kontsumismoaren jaia eta hipokresiaren bakanala besterik ikusten ez dutenak. Egia da horretan bihurtu direla, zati baten behintzat.

Nik Gabonak gustuko ditut. Uste dut urtearen barruan sasoi garrantzitsu bat direla. Herriko jaietan bezalaxe, Gabon egunetan konfiantza bat ematen da gizartean. Denok zerbait ospatzen dugu, oso sinplea den zerbait; hemen gaudela urtero bezala batzuk besteen ondoan, eta gizatalde bat osatzen dugula. Erabat prebisiblea da dana, urtero errepikatzen baita. Herria bera, komunitate bezala, jai horretan identifikatu eta afirmatzen da.

Errepikatzen den edozein errituetan bezala, gustukoak

eta ez hain gustuko gauzak aurkitzen dira. Txanpana, telebista programak, argitxoak, postalak... gauza asko dira denak gustuko izateko, ezta? Baliteke.

Gabonetan errepikatzen den sinbolo garrantzitsuenetarikoa bat ARGIA da, hain zuzen ere.

Argi berria ospatzen da, egun berria (Eguberri). Gabonak zentzu hori ere badaukate, urteberriaren hasierarekin hain zuzen, urte berri bat, ziklo berri bat, asmo berriekin jaiotzen den denbora bat. Historia berriz idazten hasten dela dirudi, asmo berriez beteta.

Dena den, errepikatzen den une hori (jaia) behar dugu, taldea batzen duen gauza gutxiatariko bat delako. Mahai inguruan elkartzeko gara, garena sendotuz, gurekin ez daudenak gogoratuz eta datorrena ona izan dadila opatuz. Bizitzaren zikloa ospatuko dugu.

Bihotzez, Eguberri-On eta Urte-Berri On, denoi.

“Gabonak gustuko ditut, bai, egia da; ez dizuet kontrakoa esango. Urtearen barruan sasoi garrantzitsua dira”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAIKAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 20
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

ZAPATUA, 21
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

DOMEKA, 22
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

ASTELEHENA, 23
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

MARTITZENA, 24
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

EGUAZTENA, 25
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUENA, 26
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

OHARRAK

ESKI DENBORALDIRAKO BONOAK
Pol-Pol Mendizale Taldeak eski denboraldirako bonoak jarri ditu salgai. Astuneko estaziorako prezioak honako hauek dira: 430 euro helduendako eta 345 euro gaztetxoendako. Candanchurako, berriz, helduenak 398 eurotan salgai daude eta 319 eurotan gaztetxoan. Argibide gehiago, 943 76 48 51 telefono zembakian.

'OLIVER' MUSIKALA BILBON
Bergarako Orfeoia Gabonetan Bilboko Euskalduna jauregian egingo duen *Oliver* musikala ikusteko sarrerak salgai daude. Emanaldiak urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean izango dira. Sarrerak BBKn edo 94 431 03 10 telefono zembakian eros daitezke.

1984AN JAIOTAKOAK
1984an jaiotakoak martitzen, hilaren 24an, 8:00etan Zabala jatetxean elkartuko dira, kantuan egiteko.

KZGUNEAN IKASTAROAK DOAN
Irizar jauregiko lehenengo solairuan dagoen KZGuneak herritar guztiendako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Argibideak: 943 76 73 24.

OTSAILEAN, BEART-EN IRTEERA MADRILERA, ARCO-RA
Beart artisten elkarteak otsailean Madrilgo ARCO feria ikustera joateko irteera antolatu du. Irteera otsailaren 14an (egubakoitza, 19:30ak aldera) egingo dute, eta itzulera domekan, otsailaren 16an. Bidaiaren prezioa 113 euro da, autobusa, bi gauetako egonaldia hiru izarretako hotelean eta Feriara joateko autobusa barne. Interesatuak elkartearen telefonon (635 71 32 69), edo Nahikari tabernan eman dezakete izena, urtarrilaren 12ra arte.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildí okindegi), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa. 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa. 943 76 62 46
Ertzaintza. 943 76 53 40
Osasun etxea. 943 76 24 40
Asepeyo. 943 76 16 43
Pakea. 943 76 13 49
Angiozarko medikua. 943 78 90 27
Antzuolako medikua. 943 76 62 23
Odol emaleak. 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak. 943 76 51 06

GARRIAK
Taxiak. 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaletxea. 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea. 943 76 62 46
Udal Artxiboa. 943 77 91 32
Igerilekuak. 943 76 20 51
Kultura etxea. 943 77 91 58
Liburutegia. 943 77 91 62
Kiroldegia. 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia. 943 76 14 92
Erregistroa. 943 76 13 15
Jardun. 943 76 36 61
Idolaz. 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara. 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea. 943 76 26 85
Bedelkar. 943 76 04 68
Akulu AEK. 943 76 05 18
Udal Euskaltegia. 943 76 44 53
Bergarako notariotza. 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegarieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30, 12:30.	San Lorentzo
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Zapatuak:
Sierbak	20:00.
Lanegunak: 19:15.	Angiozar
Zapatuak: 19:00.	Domekak:
Domekak: 11:30, 13:00.	11:30.
Osintxu	Moja
Domekak: 12:30.	Zaharrak
Zapatuak: 19:00.	Lanegunak: 9:00.
Elosu	Zapatuak: 11:00.
Domekak: 10:30.	Mizpirualde
Ubera	Lanegunak: 11:45.
Domekak:	Zapatuak: 17:30.
10:30.	Antzuola
San Juan	Domekak:
Domekak: 11:00.	09:00, 11:30.
Elorregi	Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Domekak: 10:30.	Uzarraga
	Domekak: 10:00.

URTE-MEZAK
Santa Marina
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

On Pedro Garitano Santa Marinako abadea hil zen

On Pedro Garitano, Santa Marinako abadea, 1992ko abenduaren 23an hil zen, 93 urte zituela. Egun batzuk lehenago, Zubieta-ko zubiko eskaileteran jausi, eta burezurra hautsi zuen. On Pedro Garitano oso estimatua zen herrian, eta jende asko batu zen haren aldeko hileta-elizkizunean.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Gangala"



Handia eta makala (landareez bakarrik).
-Aurten tomatiak ondo gangalak datoz, ba.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Egubakoitza, 13 **0 °C**

MAXIMOA
Zapatua, 14 **16 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
1,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 11	14 °C	8 °C	0,7 l/m ²
Eguena, 12	13 °C	1 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 13	12 °C	0 °C	0,2 l/m ²
Zapatua, 14	16 °C	6 °C	- l/m ²
Domeka, 15	12 °C	1 °C	- l/m ²
Astelehena, 16	13 °C	1 °C	0,9 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'EL ÚLTIMO TREN'

ZUZENDARIA: DIEGO ARSUGA. AKTOREAK: HECTOR ALTERIO, GASTON PAULS, FEDERICO LUPPI.

HARIA. Rieleko Adiskideen Elkarte-ko kideak haserre daude. Izan ere, Hollywoodeko estudio batek Uruguai-ko tren zahar bat eraman nahi du. Hiru kide zaharrek tren-ahitza erabakiko dute. Valladoliden saritutako filma.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●

'DESEO'

ZUZENDARIA: GERARDO VERA. AKTOREAK: LEONOR WATLING, LEONARDO SBARAGLIA, CECILIA ROTH.

HARIA. Espainiako gerraren ostean, *Elvira*-ren egoera larria da: aita komunista izateagatik fusilatuta dute eta ama oso gaixo dago. Etxe garbitzaile lanetan hasi, eta jatorri alemaniarra duen *Pablo* argentinarra ezagutuko du. *Pablo*-ri esker, ezagutzen ez zuen mundu baten murgilduko da.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●

'EL IMPERIO DEL FUEGO'

ZUZENDARIA: ROB BOWMAN. AKTOREAK: RANDALL CARLTON, GERARD BUTLER, CHRISTIAN BALE, MATTHEW MCCONAUGHEY.

HARIA. *Quinn*-ek, 12 urte zituela eta Londresen bizi zela, mendetan lotan egondako dragoi baten esnatzearen lekuko izan zen. Handik urte batzuetara, gaztelu baten bizi den komunitate bateko lider bilakatu da *Quinn*...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●

CLINICA DENTAL BERGARA

Odontologia helduendako eta umeendako
Hortz-protesia
Estetika eta zuritzea
Implanteak eta kirurgia
Umeendako tratamendua, prebentzioa eta ortodontzia

Aseguruak: Ipresa, Sanitas, Asisa, DKV/Previasa, Aegón, Guía Azul de Guipúzcoa eta Dentyred.

Bidekurutzeta 6, 2. pisua. Bergara. 943 76 05 77

DESKONTU BEREZIAK
zaharren etxeak, ezgaituak eta enpresak

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

GABONAK/ 15 urtetik beherakoendako jolasparkea egongo da, besteak beste, Labegaraietako kiroldegian

Gaztetxoek ondo pasatzeko aisialdi programa zabala izango dute Gabonetan

MONIKA BELASTEGI

Gaztetoenendako Gaboneta-ko aisialdi programa zabala antolatu du aurten ere Udalak. Olentzero, Bizar Zuri eta Hiru Erregeak urtero bezala etorriko dira. Jolasparkea ere izango dute Labegaraietako kiroldegian. Horrez gain, beste hainbat ekitaldi ere egongo da.


Jolasparkea, Olentzero, Bizar Zuri, Hiru Erregeak, Kiki, Koko, Moko eta Flax eta antzerkia dira umeen Gabon aisialdirako Udalak egiten duen eskaintza.

Jolasparkeari dagokionez, abenduaren 23an, 26an, 27an eta 28an egongo da zabalik, 15:30etik 19:30era, hain justu ere, Labegaraietako kiroldegian. Bestalde, eguneko sarre-rra hiru euro kostatuko da, eta derrigorrezkoa da kirol oinetakoak eramatea. Horrez gainera, gurasoak edo zaintzaileak ezin izango dira kantxan sartu edo beheko pasilloan egon.

Denetarik jolasak izango dituzte neska-mutikoek ondo pasatzeko. Gainera, aurten igerilekuak itxita daudenez, han jarri izan dituzten puzgarriak Labegaraietan izango dira. Bestalde, 5 urtetik beherako umee- gune berezia izango dute: kirol- degi ostean birgaitu berri duten gimnasioan, hain justu ere. Horrez guztiaz gainera, abendu- aren 28an, zapatua, 17:30ean, Kiki, Koko, Moko eta Flax paila- zoen ekitaldia izango da.

OLENTZERO, BIZAR ZURI ETA HIRU ERREGEAK

Ohi bezala, abenduaren 24an etorriko da Olentzero herrira.



Aurten, igerilekuak itxita daudenez, puzgarriak Labegaraietan jarriko dituzte, neska-mutikoak jolas daitezten.

NAFAR FERIA BIHAR, SAN ANTONION

Gabonetako ekitaldien barruan, San Antonioko Gure Ametsa elkarteak Nafar Feria antolatu du. Bihar, zapatua izango da, San Antonioko plazatxoan, eta 10:30ean irekiko dute. Nafarroako jakiak ikusteko, dastatzeko eta erosteko aukera egongo da.

Jakien postuez gain, 11:00etan, txistulariek alaitutako kalejira izango da; 11:30ean, berriz, On Serafin Esnaola zenaren oroime- nez meza esango dute, kaperan. Mezaren ostean, 13:00etan, hain justu ere, Alai-Taldea Otxoteak Gabonetako kantak eskainiko ditu, eta 14:00etan, Jaiotzen Lehiaketako sari banaketa egingo dute, San Antonioko plazatxoan. Gainera, lehiaketan parte hartu duten jaiotzak ikusgai egongo dira goiz osoan barrena plaza horretan. Azkenik, Nafar Feria-ko ekitaldiekin bukatzeko, bazkaria egongo da Gure Ametsa elkartearen, 14:30ean.

PRESO ETA IHESLARIAK GOGOAN

Preso eta iheslarien aldeko ekimenak ere izango dira Gabonetan. Abenduaren 24an, Olentzero abiatuko da 08:00etan, Zabaltik, eta eguerdian, bazkaria izango da Artatsen (izenematea, Arranon eta Pol-Polen). Horrez gain, 19:30ean, *Euskal preso eta iheslariak etxera* kartelada egingo dute, San Martin plazan. Abenduaren 27an, *Euskal Presoak Euskal Herrira* elkarretaratzea egingo dute, 19:30ean, San Martin plazan. Abenduaren 31n, brindisa egingo dute, 01:00etan, San Martin plazan. Azkenik, urtarrilaren 5ean, Intxortara igoera izango da, eta 11:00etan, argazkia aterako dute han. Eta 19:30ean, *Euskal Presoak Euskal herrira* lelopean manifestazioa deitu dute.

19:00etan iritsiko da, San Martin plazara, eta tarte baten han izango da umeen gutunak jasotzeko. Bizar Zuri eta Errege Magoak, berriz, urtarrilaren 5ean etorri-

ko dira. Bizar Zuri 18:00etan helduko da, San Martin plazara, eta han umeen gutunak jasoko ditu. 19:30ean, aldiz, Errege Magoak iritsiko dira, eta herrian barrena ibiliko dira zaldiaren gainean, umeen gozamenerako.

UMEENDAKO ANTZERKIA UDAL PILOTALEKUAN

Umeendako antzerki emanaldia ere izango da Udal Pilotalekuan. Dar-Dar prudukzioek *Pinotxo behin batean* antzezlanaren egingo dute abenduaren 28an, 17:00etan.

Helburu pedagogikoak ditu eta bi klasiko unibertsal batzen ditu:

Carlo Collodiren *Pinotxo* ipuina eta Bach konpositorearen musika. Bestalde, ikuskizunean aktoreak, txotxongiloak eta txinatar itzelak ere ikusi ahal izango dira.

Bihar, zapatua, San Antonioko Nafar Ferialan Jaiotza Lehiaketako sariak banatuko dituzte

Olentzerok 24an, 19:00etan, jasoko ditu umeen gutunak eta Bizar Zurik 5ean, 18:00etan

Mobilizazioak Jose Luis Elkororen alde

MONIKA BELASTEGI

Joan den astean, hainbat herritarrek bat egin zuten Jose Luis Elkorori elkartzuna adierazteko eta Euskal Herriarendako demokrazia eskatzeko antolatutako mobilizazioetan. Hainbat izan ziren: besteak beste, 20 ikasle inguruk itxialdia egin zuten Miguel Altunan, eta han eman zuten eguenetik egubakoitzarako gaua. Horrez gain, 25 lagun inguruk itxialdia egin zuten osoko bilkuren aretoan, egubakoitzean; tartean, HB, EH eta Batasuneko hainbat hautetsik. Zapatuan,

berriz, HB, EH eta Batasuneko hautetsiek prentsaurrekoa egin zuten. Berretsi egin zuten "jasaten ari garen eskubide zapal- keta aurrean, herri hau bake eta askatasun eszenatokira eramateko konpromisoa". Eta egoera ilun horren irtenbidea Euskal Herriaren aitortzan eta herritar- rooi dagokigun erabaki eskubi- dean oinarritzen dela esan zuten. Eskubideon defentsan aritutako hiru herritar auzipetu dituztela gogoratu zuten: Jose Luis Elko- ro alkate ohi, Jose Ramon Aran- guren zinegotzi ohi eta Xabier Arregi zinegotzia.



Itxialdiaren ondoren egindako prentsaurrekoan Duintasun Egun Nazionalen parte hartzeko deia ere egin zuten hautetsiek.

AITOR URIZAR

GIZARTEA/ Lan baldintza duinak eskatzeko eguneroko elkarretaratzeekin jarraituko dute

Etkez etxeko zerbitzuko langileak, mobilizaziotan

MONIKA BELASTEGI

Etkez etxeko zerbitzua eskaintzen duen Gizaintza SL enpresako langileek mobilizazioekin segitzen dute. Enpresa Hitzarrena negoziatzen ari dira zuzendaritzarekin, eta hainbat desadostasun direla kausa, hilaren 9tik, egunero, elkarretaratzeak egiten ari dira.

Elkarretaratzeen helburua da, "batetik, herritarrei ezagutzera ematea etkez etxeko zerbitzuko hogeita sei langileen lan egoera, eta, bestetik, egoera hori salatzea", Elsa Sánchez LABeko ordezkariak azaldu duenez. Haren esanetan, enpresa hitzarmena da mobilizazioen arrazoa: "Negoiaziotan aritu gara enpresako zuzendaritzarekin, baina ez dugu ezer adostu. Zuzendaritzaren azken erantzuna izan da herrialdeko hitzarmenak dioena aplikatuko duela. Baina hori martxora arte luza daiteke. Bien bitartean, langileek lan baldintza duinak eskatzen dituzte".


Besteak beste, hiru aldarrikapen nagusi dituzte etkez etxe-



Langileek pankartak jarri dituzte kaleetan, euren aldarrikapenen berri emateko.

ko zerbitzuko langileek: batetik, soldata igoera eskatzen dute; bestetik, kontratazioak aplikatzea; eta hirugarren, berdintzea enpresan dauden bi langile moten arteko lan baldintzak.

Hilaren 6an hasi zituzten langileek elkarretaratzeak, eta, orduetik, egunero batu dira San Martin plazan, 20:00etatik 20:30etara. Gabonetan ere elkarretaratzeek jarraituko dutela adierazi dute.



LAB, Udaleko sindikatu nagusia

Udalan hauteskunde sindikalak egin berri dituzte. Bi sindikatuk dute ordezkari-tza Udalan, LABek eta ELAk, eta hauteskudetako emaitzen arabera, LAB izan da nagusi: LABek hamar ordezkari lortu ditu eta ELA sindikatuak, berriz, bi.

Bozketari dagokionez, 134 lagunek zuten hauteskunde sindikaletan bozkatzeko aukera. Horietatik, 75 boto LABek eskuratu ditu; ELAk 30; 26 lagun abstenitu egin dira; eta 3 baliogabeak izan dira.

LABUR

FISC gobernuz kanpoko erakundeak bidezko merkataritza postua jarriko du plazan

Bihar, zapatua, Bergarako FISC gobernuz kanpoko erakundeak bidezko merkataritza postua jarriko du San Martin plazan. 10:00etatik 14:00etara bitartean jarriko dute, eta salgai jarriko dituzten produktuak Arrasateko Harreman dendatik ekarriko dituzte.

Guztiak, bai artisau produktuak baita janaria ere, Hirugarren Munduko hainbat herrialdeetakoak dira; besteak beste, Peru, Ekuador, Nikaragua eta Kongokoak.

EHNA tramitatzeko ireki duten bulegoak ordutegia zabalduko du Gabonetan

Udalbiltzak Kruz Gallastegin zabaldu duen bulegoak ordutegi zabalagoa izango du abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra bitartean: astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; zapatuetan, berriz, 11:00etatik 13:00etara zabalduko dute.

EHNA egiteko honako dokumentazioa eraman behar da: hiru argazki, errolda agiria eta Euskadiko Kutxan 12 euro sartu ondoren ematen duten agiria (kontu zenbakia: 3035 0135 921350011892).

Martoko auzoko plaza berrantolatu eta urbanizatzeko proiektua onartu dute

Martoko auzoko plaza berrantolatu eta urbanizatzeko proiektua eta lanak esleitzeko baldintzak onartu berri ditu Gobernu batzordeak. Udalak urtea amaitu baino lehen hasi nahi ditu aipatutako lanak.

Hainbat lagunek elkarretaratzea egin zuten eguaztenean, Madrilgo atentatua salatzen

Ibarretxe lehendakariak deitutako elkarretaratzearekin bat egin zuten eguaztenean hainbat herritarrek. San Martin plazan izan zen, 12:00etatik 12:15era bitartean, eta Madrilan izandako atentatua salatzea izan zuten helburu.

Udal Liburutegiak ordutegia aldatuko du Gabonetako oporraldirako

Gabonak direla eta, ordutegia aldatuko du Udal Liburutegiak: hala, abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra bitartean, goizez bakarrik egongo da zabalik, 08:00etatik 13:30era, hain justu ere.

Arranon eta gaztetxean izan ziren erasoak gaitzetsi ditu Udaleko Gobernu batzordeak

Abenduaren 3an, gauean, Arrano tabernan eta gaztetxean azal dutako pintadak eta kalteak publikoki salatzen ditu Udaleko Gobernu batzordeak, erredakziora bidalitako ohar baten bitartez.


AEK-k mariskada zozketatuko du, urtero bezala, abenduaren 24an, San Martin plazan

Begarako Akulu AEK euskaltegiak mariskada zozketatuko du, abenduaren 24an, azken urteetan egin izan duen bezala. San Martin plazan izango da, eta 18:00etan hasiko dira txartelak saltzen. Zozketa, berriz, 20:00etan izango da.

AZPEITXI


Jatetxea

Aranerrika 13 behea. Bergara
943 76 55 00



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



IRURAK MARGOAK

DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

HIRIGINTZA/ Aurrekontua 10.704.220 eurokoa da (1.781.032.000 pezeta); Bergarako Udalak ez daki zer-nolako dirulaguntza jasoko duen Diputaziotik


Agorrosingo kirolgune berriko lanak maiatzean hasi eta 2007an amaituko dira

EDU MENDIBIL

Agorrosingo kirolgune berriko lehen fasea egiteko lanak maiatzean hasiko dira. Lan guztiak, berriz, 2007. urterako amaituta egotea espero dute. Aurrekontua 10.704.220 euro ingurukoa izango da, eta Bergarako Udala Diputazioaren laguntza jasotzeko zain dago.

Victoriano Gallastegi alkateak astelehenean prentsaurrekoan aditzera eman zuenez, 2003ko maiatzean hasiko dira Agorrosingo kirolgune berria eraikitze-ko lanak. Aurrekontua 10.704.200 euro ingurukoa da (1.781.000.000 pezeta), eta lan guztiak 2007. urterako amaituta egotea espero dute Udaleko arduradunek. Alkateak adierazi zuenez, "oraindik ez daki-gu zer-nolako dirulaguntza jasoko dugun Diputaziotik. Hala ere, igerilekua itxi egin behar izan dugu, zaharkituta zegoelako, eta Diputazioa proiektua laguntzeko beharrean dagoela uste dugu".

Alvaro Pérez de Amezaga eta Jorge Muntaniola arkitektoek landutako proiektuak hiru fase izango ditu: lehenbizikoa maiatzean jarriko dute abian, eta, besteak beste, bi igerileku estali (21x25 m eta 20x5,5 m), aldagelak, gimnasioa, squasherako frontoia, haurtzaindegia eta kafetegi-jate-txea eraikiko dituzte, 6.915.900 euroko aurrekontuarekin. Lehen fase hori 2005. urteko apirilera-



Alvaro Pérez de Amezaga arkitektoa proiektu berriaren inguruko azalpenak eman zituen astelehenean.

ko amaituta egotea espero dute. Bien bitartean, kanpoko igerileku txikia erabiltzeko aukera egongo da. Igerileku probisionala otsailerako prest egongo da, eta Iñaki Ugarteburu kirol teknikariaren esanetan, "neguko erabiltzaileak kontuan izanik, 1.500 bazkide inguru egotea espero dugu.

2005ean lehen fasea amaitu arte, erabili ahalko da kanpoko igerileku txikia

Uda parterako, berriz, ikusiko dugu zer egin, instalazioa txiki geratuko da-eta".

Bigarren fasean, berriz, jolas igeritokia (neguan estalkia izango duena) egingo da. Aurrekontua 2.168.150 eurokoa da; eta, azkenik, hirugarren fasean, belar artifizialeko futbol zelaiak, Ipintzan.

Hirugarren fase horrek 932.000 euroko kostua izango du. Lan guztiak 2007. urterako amaituta egongo direla azaldu zuen Victoriano Gallastegi alkateak.

PUNTA-PUNTAKO INSTALAZIOAK

Alkatearekin, Xabier Zabaleta zinegotziarekin eta Iñaki Ugartebururekin batera, Alvaro Pérez de Amezaga arkitektoa izan zen asteleheneko prentsaurrekoan. Muntaniolarekin batera, besteak beste, Zumaiako kiroldegia, Barakaldoko Lasasarre kiroldegia edo Hondarribiko Hondartza kiroldegiko kanpoaldea landu dituzte azken urteotan. Hark esan zuenez, "proiektua ahalik eta funtzionalena izatea nahi genuen, mantentze-lan gastuak murriztuz, baina alderdi estetiko eta arkitektonikoa alde batera laga barik. Horrekin lotuta, jolas igeritoki-ko estalkia mugikorra izateak erakargarri egiten du proiektua". Gutxienez, igerilekuko ura tenperatuta egokian edukitzeko eguzki indarreko plakak jartzea zehazten da proiektuan.

Beste berritasunetako bat zera izango da: hormigoikoa izan beharrean, igerilekua altzairu herdoilgaitzekoa izango da, gaur eguneko joerari jarraituta. Punta-puntako instalazioak izango direla azaldu zuen alkateak.

Proiektu berriko planoak ikusgai egongo dira bihar arte, zapatua, udaletxean, 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era.

DANONDAKO OPARIAK!



jolas



ONGI IBILI GABONETAN!

Barrenkalea 27. Tel. 943 76 46 48

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

GURIDI koltxoi denda
Artekalea 6. BERGARA
Tel. 943 76 31 02

GURIDI altzari denda
Artekalea 8. BERGARA
Tel. 943 76 31 02

GABONETAKO ESKAINTZA BEREZIA
Koltxoi bat erosteagatik opari bat zuretzat*

Zorionak eta urte berri on!

*Opariak agortu arteko eskaintza

Bideluze
ARROPA GARBITEGIA

Laneko arropa
Mantelak
Mantak
Edredoia
Alfonbrak
Moketak
Gortinak

Arropa konpontzen dugu

Bordatuak egiten ditugu

AMILLAGA 26
POSTA KUTXA 82
BERGARA
TEL.: 943 764 943
FAXA: 943 769 708



GASOLINDEGIA ITXITA OBRAK DIRELA-ETA

A millagako gasolindegia itxita dago duela hiru astetik. Berrikuntza lanetan ari dira, eta, besteak beste, gasolina hornigailuen kanalizazio sistema osoa aldatu eta instalazio elektriko berria jarriko dute. Denda eta automobil-garbitzea irekita daude, baina oraindik asko dago egiteko, eta Gabonetako oporrak tartean, gasolindegia ez dute berriro zabalduko urtarriaren azkenera arte, ziurrenik.

GABON GIROA SAN JOXEPEN

A stean barrena hainbat ospakizun izan dituzte San Joxepe elkartean. Karta jokoetan honako hauek izan dira irabazleak: Mus Txapelketan Lucas Díazek eta Carmelo Casellesek osatutako bikotea izan genuen onena, tutekoa Rafael Vallejok eta Jose Mari Akizuk irabazi zuten, briskakoa Ana Morazak eta Isabel Rejanok eta billarrean, berriz, Gabriel Medina izan zen txapeldua. Bestalde, atzo, Gabon saskia zozkatzeko zen, eta gaur txistorjana izango da San Joxepen.



OLENTZERO BADATOR!

G abonak gainen dira, eta dagoeneko apaindu dituzte herriko kaleak argiekin, eta abarrekin. Erakusleho dotoreak ere ikusi ahal izan ditugu Gabonei ongietorria emateko. Eta Olentzero ere opariz beteta datorrela esan digute: Ormazabal hotolean ikusi genuen aurrekoan, oparien zakua bete-beteta zuela...



**Matxiategi
Elektragintza
S.L.**

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

Bolu
enmarkazioak

Enmarkazioak

Ispiluak neurria

Zurezko artikulua

Bergarako oleo eta lumatxoak


Koldo Eleizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

**Radio
Bergara**

Etxetresna elektrikoak
Sakelako telefonoak
Lanparak
Opariak

San Pedro 25
BERGARA
943 76 19 89

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57


1929az geroztik zure zerbitzura

Edozein egoera menderatzen
lagunduko dizun auto batekin amets egiten duzu?
Vectra berria orain, 16.500 €-tik aurrera.



Opel Vectra berria

Xasis berria Gidatzeko Sistema Interaktiboarekin (IDS), non direkzioak, frenoak eta esekidurak elkarrekin lan egiten duten errepidearen kontrol osoa lortzeko. Vectra guztiz berritua, Ecotec balbula anitzeko motor gama berritzailearekin: 2.2 DTI / 125 ZP edo 3.2 V6 / 211 ZP edo potentzia handiko motorra duen GTS bertsioa.



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

*Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan Vectra Club 1.8 16 V modeloan. Hau guztia barne: garraioa, BEZa, matrikulazio zerga, Prever Plana eta berria ez den ibilgailuen akzioa. Hil bukaera arteko promozioa. Iragarkian agertzen den modeloa ez da eskaintzen dena.

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

www.giauto.es

PILOTA

Larrañaga-Altuna gazte mailako bikotea eta Gorka Martín, Gipuzkoako finaletan

Larrañagak eta Altunak elgoibartarren aurka jokatuko dute gaur, eta Martínek, Jon Bengoetxearekin batera, tolosarrak izango ditu aurrean bihar

EDU MENDIBIL

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako finaletan Asier Larrañaga-Ibai Altuna bigarren mailako gazte bikoteak Elgoibarren aurka jokatuko du gaur, Oñatin. Eta Eibar taldean ari den Gorka Martínek finala izango du bihar, zapatua.

Jon Bengoetxea eibartarrarekin bikotea osatuz, Gorka Martínek Muguruza-Gutiérrez Bergara KEko bikoteari irabazi zien egubakoitzean, Astelenan, 22-5. Horren ondorioz, Eibarko bikoteak finalerako txartela lortu zuen eta bihar, zapatua, arratsaldean, Tolosako San Esteban taldeko bikoteari aurre egin beharko diote, Oñatiko Zubikoa kiroldegian, lehen senior mailan.

Era berean, Asier Larrañaga eta Ibai Altuna bigarren mailako gazteek finala jokatuko dute gaur, Oñatin. Finalerdian 17-22 gailendu zitzaizen bergararrak azpeitiarrei. Gaur, Elgoibarko bikotea izango dute aurkari. Jaialdia

20:00etan hasiko da, eta bergarrek bigarren partidua jokatuko dute.

Pilotarekin jarraituz, astelehenean, 17:00etan hasita, Gabonetako Txapelketako finalerdiak jokatuko dira, Udal Pilotalekuan. Finalak, berriz, Gabonetan jokatuko dira, hilaren 28an, 16:00etan.

MAHAI-INGURUA ABENDUAREN 27AN

Bergarako KEko urrezko ezteien ospakizunak amaitzeko, datorren egubakoitzean, hilaren 27an, pilotaren gaineko mahai-ingurua izango da Miguel Altunan, 19:00etan. Bixente Jauregi, Jose Mari Zezeaga, Jokin Etxaniz, Iker Muruamendiaraz, Miguel Etxaniz eta Luis Mari Gutiérrezek hartuko dute parte eta Koldo Aldalur ETBko kazetaria arituko da moderatzaile lanetan. Mahai-inguruaren ostean, Julio Askasibarri omenaldia egingo diote, urtetan herriko pilotaren alde egindako lanagatik. Horren ondoren, Oxirondo elkartearen afaria izango da. Interesatuak elkartearen bertan eman dezakete izena.



Goian, erdian, Ibai Altuna eta eskuman, Asier Larrañaga. Elgoibarren kontrako finala izango dute gaur, Oñatin.

Mallabiko Pradera anaiek irabazi zuten Pala Txapelketako finala

E.M.

Iñigo eta Ismael Praderak garaipena erdietsi zuten zapatuan Angiozarren jokatutako Pala Txapelketako finalean, David López eta Gaizka Okariz Ermuko bikoteari 35-8 nagusituta. Muruamendiaraz-Acedo bergararrak, bestetik, hirugarren izan ziren.

Mallabiko Pradera anaiek uste baino errazago irabazi zieten David López eta Gaizka Okariz ermuarrei. Txapelketako onenak izan direla baieztatu zuten Angiozarko Arbiaska pilotalekuan, eta txapeldunegi zegokien saria eskuratu zuten. Debagoieneko Zirkuiterako puntuak ere lortu zituzten. Hirugarren posturako partiduan Asier Muruamendiarazek eta Jaime Acedok 35-18 irabazi zioten Iban Tueros-Eneko Urain Eibarko bikoteari.



IÑAKI UGARTEBÜRRI

Zapatuko finaleko protagonistak Zabaleta zinegotziarekin. Ezkerrean, irabazleak.

FRONTOIAK ETA TENIS PISTA

Udal Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, datorren urtean, herriko frontoietan edo Labegarrietako tenis pistan ordua har-

tzeko interesa dutenek Udaltxean eman beharko dute izena, abenduaren 31 baino lehen. Argibide gehiago, Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefonoan.

Senior nesken eskubaloiak liderra hartuko du bihar

E.M.

Bergara KEko senior nesken eskubaloi taldeak Zarautz liderra hartuko du bihar, zapatua, Labegarrietako kiroldegian, 17:30ean. Bergarrek partidu bakarra irabazi dute orain arte.

Xabier Lijók eta Josu Zeziagak zuzendutako taldea sailkapeneko azkenaurreko tokian da, garaipen bakar bat lortu dute-eta orain arte. Gainerako bost partiduetan galtzaile atera dira, horietako lau partidutan oso alde eskasatik galdu zuten arren. Hala ere, entrenatzaileak pozik daude orain arte taldeak erakutsitako jarrerarekin. Bihar, liderraren aurrean, badakite irabaztea zaila izango dela, baina ez dute garaipena oparituko aurrez. Taldean diren 16 jokalarietatik, Erika Arteagak ezin izango du jokatu biharko partidua.

Datorren astean ere bergarrek partidua jokatuko dute. Izan ere, aurreko aste bukaeran, bertan behera geratu zen Ereintzaren aurka jokatutako beharreko partidua, eta partidua abenduaren 28an jokatuko da, Errenterian.

Aurreko jardunaldian honako emaitzak izan ziren: Bergara 26 - Egia 28 (senior mutilak); Bergara 29 - Ormaiztegi 12 (gazte mutilak) eta Mollarri 22 - Bergara 20 (kadete neskek).

SASKIBALOA: INFANTIL MAILAKO BI JOKALARI, GIPUZKOAKO SELEKZIOARA

Aste bukaeran, saskibaloi taldeek ez dute etxean partidurik izango. Edozelan ere, nabarmentzekoa da infantil taldeko Ander García eta Antxon Hernández Gipuzkoako Selektzioarako deitu dituztela. Abenduaren 26an hasita entrenamenduak izango dituzte Gipuzkoako Selektzioarekin, eta urtarrilaren 3an, Nafarroaren aurkako jokatuko dute.

EH HUTS EGIN KIROLA OPARITU

SPORTLAND
FORUM SHOPS

SPORTLAND ARRASATE. Garibal Etorbidea. 2-6 Gipuzkoa

Igeri Elkarteko neskak 10. lekuan geratu dira Gipuzkoako Txapelketan

E.M.

Bergara Igeri Elkarteko nesken taldea 10. postuan sailkatu zen aste bukaeran Zarautzen jokaturako Gipuzkoako Txapelketa Absolutuan. Errelebutan, 4x50 libreetan lortu zuten sailkapenik onena: zazpigarren postua, hain zuzen.

Maite Urzelai, Goiatz Pérez, Neritzel Albusua, Nerea Anduaga eta Maria Galarragak hartu zuten parte txapelketan, Igeri Elkartea ordezkaturik. Maitek 4. postua lortu zuen 50 m-ko bizkar proban, eta 12.a izan zen 200 estiloetan eta 100 m-ko bizkar estiloan. Neritzel, berriz, 7.a izan zen 50 m-ko bular proban, 8.a 200 m-ko bular proban eta 10.a 100 m-ko bular proban. Azkenik, Goiatz 14. tokian sailkatu zen 100 eta 200 metro libreetan eta 16.a 50 libreetan.

Maria Galarragak eta Nerea Anduagak errelebutan hartu zuten parte. Maite, Goiatz, Maria eta Neritzel zazpigarrenak izan genituen 4x50 m estiloetan, eta 4x100 estiloetan zortzigarren postuan sailkatu ziren. Era berean, Maite, Goiatz, Nerea eta Neritzel zazpigarren heldu ziren 4x50 libreetan eta zortzigarren postua lortu zuten 4x100 libre-



Igeri Elkarteko benjamin eta alebinek txapelketa izango dute bihar Legazpin.

tan. Zarautzen Gipuzkoako igerilaririk onenak bildu ziren zapatuan eta domekan. Amaia Andueza Bergara Igeri Elkarteko entrenatzailea pozik azaldu da han lortutako emaitzekin: "Kontuan izanda zer-nolako baldintzatan entrenatzen ari garen, ezin diegu gehiagorik eskatu. Nesken sailkapenean 10. postua eskuratzea ondo dago. Zarautzen izan ziren igerilariak guztia eman zuten, eta pozik nago lortutakoarekin, lehia handia zelako".

ZAPATUAN, LEGAZPIN

Bihar, zapatua, Gipuzkoako Ligako beste jardunaldi bat jokatu da Legazpiko igerilekuan. Igeri Elkarteko 17 igerilari gaztetxo izango dira han, benjamin eta alebin mailakoak, hain zuzen. Era berean, hurrengo zapatuan, abenduaren 28an, Gabon Kopa jokatu da Eibarren. Lehen aipatutakoek gain, infantil mailakoek ere hartuko dute parte Ipuruan jokatu den txapelketan. 1986tik 1992ra bitartean jaiotako 34 igerilari ari dira aurten taldean.

Tolosa preferenteko liderra bisitari zapatuan Agorrosinen

E.M.

Bergara KEko preferente futbol taldeak Tolosa liderra hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 15:30ean. Tolosarrak, esan bezala, sailkapeneko lehen postuan dira, 34 punturekin. Jokaturako hamabost partiduetatik bakarra galdu dute, baina Bergarak ez dio gauzak erraz jarriko bihar. Mahoneroak ere sasoi onean dira, eta aurreko jardunaldian etxetik kanpo beste garaipen bat erdietsi zuten, Ordizian, 0-1. Gorka San Vicentek egin zuen partiduko gol bakarra, 32. minutuan, penalti jaurtiketa baten. Juani-

na Garairen mutilak zazpigarren tokian dira, 23 punturekin.

Zapatuan, bigarren mailako gazte taldeak ere etxean jokatu du, Gazteak-en aurka, 17:30ean, Ipintzan. Domekan, bestalde, nesken taldeak Eibartarrak hartuko du, 11:30ean.

GAZTE TXAPELKETA GABONETAN

Gabonetako Gazte Txapelketan Bergara-Abadiño partidua izango da eguenean, hilak 26, Ipintzan, 17:00etan. Hilaren 27an, ordu eta toki berean, Eibarren eta Realaren arteko norgehiagoka izango da, eta irabazleen arteko finala 28an, Agorrosinen, 16:00etan.

LABEGARAIETAKO FUTBITOXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Getokuak-Dedo Pafarru. Canalejas
10:30: Canalejas-K.Piperrak. Dedo Pafarru
11:30: Fac-Belengua. K.Piperrak
16:00: Errotagain-Aterpe. Irubide
19:00: Etengabe-De Ore. Artusamak
20:00: Artusamak-Torrekoa. Etengabe

ZAPATUAN, KANPOAN

17:00: Bedarreta-Irubide. Errotagain

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Txipiron-Bildurbarek. Argandolas
10:30: Ganbara-Argandolas. Txipiron
11:30: Las p. de Satan-Pagomendi. Ganbara
12:00: TNT-Artusamak. Pagomendi

ZAPATUAN, KANPOAN

19:00: La Q. del Bui.-Mongatxu. A Ze Flaxa
20:00: Agirrebeña-A Ze Flaxa. Mongatxu.

euskara da oparirik onena

Zabal itzazu mundura jatorrizko bertsoan

Hemen duzu zure ametsetako oparia, hegoaldeko itsasoak zeharkatzeko, altxorrak aurkitzeko, bizitzeko, ederi pasatzeko, familian gozatzeko, lagunartean aritzeko, hemen duzu bititza osarako oparia.

100 produktutik gora dituzu aukeran. Bideoirik onenak, mahai jokoak, bideo-jokoak eta CD-ROMak dituzu zain. Alaiak, entretenigarriak, zirraragarriak eta euskaraz!

Bete ezazu txartel hau eta bidali aldizkariaren helbidera -Goiena. Nafarroa etorbidea, 2. 20500 Arrasate- Bideoak, bideojokoak, mahai jokoak, haurrentzako puzzleak... ditugu zuri oparitzeko.

Izen-obizenak _____
 Helbidea _____ P.K _____
 Herria _____ Tel. _____

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

euskaraz? bai.
 Gipuzkoako Foru Ahozko Diputazioaren Foru de Gipuzkoan
 Kultura, Euskaraz, Gaitasun eta Kirol Departamentuaren Departamentu de Cultura, Euskaraz, Auzotasun eta Deporte

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



ATE IRRISTAGARRIAK
HORMAN SARTUTA:
LEKU GUZTIA
APROBETXATZEKO



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 88 40 20

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Zorionak eta urte berri on!

Mirari
JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93


**GABONETAKO
ESKAINTZA
BEREZIAK!**

MIKEL SOTO
5 urte
IRABAZLEA
Aranzadi Ikastola



Olentzero Marrazki Lehiaketako irabazleak

Elgetako, Antzuolako eta Bergarako ikastetxeetako 1.300 ikasle inguruk (2 eta 11 urte artekoak) hartu dute parte Jardunek eta BERRIGARAK antolatutako lehiaketan. Eta, epaimahaiaren arabera, Mikel Sotorena izan da marrazki onena; BERRIGARAKo azalean agertzen dena, hain justu. Adin bakoitzeko onenek ere saria eskuratu dute: euren marrazkiekin egindako koadro bana eta gozokiak.




MIRIAM MOÑUX
2 urte
Mariaren Lagundia



BEÑAT KORTABARRIA
3 urte
Antzuola



ENYA RENNER
4 urte
San Martin (Osintxu)




AITOR DOMÍNGUEZ
6 urte
Antzuola



AITOR GOROSTIZA
7 urte
Elgeta



MIKEL GALLASTEGI
8 urte
Angiozar



AMAIA IRASTORZA
9 urte
Antzuola



AITOR ETXANIZ
10 urte
San Martin



NEKANE VARELA
11 urte
Mariaren Lagundia

Udazken kulturala 2002 Azken txanpa



2002.12.21, larunbata

Gabonetako kontzertua:

- Udal Musika Bandak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orfeoia eta Gabero abesbatzak eskainia, 22:00etan Udal Pilotalekuan.



2002.12.24, asteartea

Olentzerok umeen kartak jasoko ditu.

- 19:00etan San Martin plazan.

2002.12.23, 26, 27, eta 28

Gabonetako haurren jolas parkea.

- Labegaraieta kiroldegian: 15:30etik 19:30era



2002.12.28, larunbata

Ozenki Otxotearen kontzertua.

- Mariaren Lagundia ikastolako elizan 19:30ean
- Txutxo eta Onddoren rock kontzertua**
- Jam aretoan, 21:30ean

2002.12.29, igandea

"Pinotxo behin batean" haurrendako antzerkia

- Dar-Dar Produkzioak-ekin 17:00etan Udal Pilotalekuan.

2003.01.05, igandea

Bizar Zuri

- Umeen kartak jasoko ditu 18:00etan San Martin plazan.

Kabalgata

- Erregeen kabalgata 19:30ean.



BERGARAKO
UDALA



San Juan 1 A.
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak





ARTXIBOA

Udal Musika Banda, Aritzeta Abesbatza, Bergarako Orkestra Sinfonikoa, Bergarako Orfeoia eta Gabero Abesbatza arituko dira.

Emanaldiaren bigarren atalean BK Eren 50. urteurreneko ekitaldiei amaiera emango diete

Gabonetako kontzertua, bihar, Udal Pilotalekuan

MONIKA BELASTEGI

Urteroko ohiturari jarraituz, bihar, zapatua, Gabonetako kontzertua egingo dute herriko musika taldeek. 22:00etan izango da, Udal Pilotalekuan. Emanaldiaren bigarren atalean BK Eren 50. urteurreneko ospakizun ekitaldiei amaiera emango diete.

Udal Musika Bandak, Aritzeta Abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoa, Bergarako Orfeoia eta Gabero Abesbatzak hartuko dute parte Gabonetako kontzertuan. Ohi bezala, talde bakoitzak bakarkako egitaraua egingo du lehenik; emanaldiaren bigarren atalean, berriz, talde guztiek elkarrekin hiru lan joko dituzte.

KIROL ELKARTEAREN URTEURRENA

Emanaldiaren bigarren atalak berritasuna izango du aurren: Bergara Kirol Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko egin diren ekitaldiei amaiera emango diete. Horretarako, egitarau berezia antolatu dute: kirol musikarekin lotutako egitaraua egingo dute bigarren zatian, hain zuzen ere.

Kontzertuaren egitaraua

UDAL MUSIKA BANDA

Zuzendaria: Alfredo González Chirlaque
'Nostradamus'(O.M. Schwarz)

ARITZETA ABESBATZA

Zuzendaria: Imanol Urzelai
'El Abanico'(J. Trayter)
'The Lion Sleeps Tonight'(J. Dominguez)
'Carnavalito Quebradeño'(Virtu Maragno)
'Orra Mari Domingi'(R. Usandizagaren moldaketa)

BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Alfredo González Chirlaque
'Fantasy Tales'(P. Swerts)

BERGARAKO ORFEOIA ETA GABERO ABESBATZA

Zuzendaria: David Azurza
'Oles, Oles'(D. Azurza)
'Biolin Musikaz'(D. Azurzaren moldaketa)
'Birjina Maite'(D. Azurzaren moldaketa)
'Ain't got time to die'(H. Johnson)

TALDE GUZTIAK ELKARREKIN

Zuzendaria: Alfredo González Chirlaque
'Liberty Fanfare'(J. Williams)
'Radetzky Martxa'(J. Strauss)
'Txapeldunak' ..(Musika: M.G. Bastida/Hitzak: V. Moñux)

KULTURAPILULAK

Erakusleho Lehiaketako bost sarituak erabaki dituzte, eta 23an jasoko dute saria


Honako komertzio hauek jasoko dute saria: Pascual telefonoak, Kanela dekorazioak, Gisasola ferreteria, Ninika lora denda eta Baster arropa denda. Irabazleetako bakoitzak 150 euro eta trofeo jasoko ditu. Sari banaketa datorren astelehenean, hilaren 23an, izango da, kultura etxean, 15:30ean.

Ozenki Otxotearen emanaldia abenduaren 28an, Mariaren Lagundia Ikastolako elizan

Abenduaren 28an, 19:30ean izango da emanaldia, Mariaren Lagundia Ikastolako elizan, eta hamalau kantuko egitaraua egingo du taldeak, kantu euskaldunak zein kanpokoak. Besteak beste, honako hauek: Sarriegiren *Beti maite*, Aita Madinaren *Azokan*, Santestebanen *Ume eder bat* eta Burleigh-en *Deep River*.

Bergarako pintoreek erakusketa jarriko dute ikusgai gaur, egubakoitza, kultura etxean

Gabonekin batera, Bergarako pintoreek erakusketa irekiko dute gaur, egubakoitza, kultura etxean. Hilaren 29ra arte egongo da ikusgai. Ordutegia: astelehenean egubakoitzera (18:00-21:00) eta zapatuetan eta jaiegunetan (12:00-14:00 eta 18:00-20:00).



'Bergara 2002' erakusketa gaztetxean

Azurrek *Euskal Txokoak*, *Bergara 2002* argazki erakusketa jarri du ikusgai gaztetxean. Ehun argazki inguruk osatzen dute erakusketa. Guztiak Bergaran ateratakoak dira, eta gaiaren arabera hainbat paneletan banatuta daude: San Martzialak, San Juan sua, paisaiak, txotxongilo mostra eta rock taldeak, besteak beste. Gabon egunetan egongo da ikusgai. /M.B.

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industrial
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...



BERGARA
Urko Sarobe
Abenduaren 27an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Gorka Egaña
Abenduaren 20an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Alvaro Fernández
Abenduaren 30ean
8 urte. Urte askotarako!
Familiakoak eta Lorena.



BERGARA
Alazne Roman
Abenduaren 9an 9 urte.
Urte askotarako!
Jokin, Amagoia eta Asier.



BERGARA
Paulina Errasti
Abenduaren 31n 83 urte.
Zorionak eta musu bat!
Etxeko guztiak.



BERGARA
Marina Iturriaga
Abenduaren 17an 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Oier Arealillo
Urtarrilaren 8an 2 urte.
Zorionak! Musuak! Maren,
Gaizka, Danel eta etxekoak.



BERGARA
Ainhoa Molpeceres
Abenduaren 23an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Amaia Elortza
Abenduaren 22an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Maddi.



BERGARA
Amaia Jauregi
Abenduaren 25ean
9 urte. Urte askotarako!
Mariñe eta etxekoak.



BERGARA
Olatz Barragan
Abenduaren 26an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Unai.



BERGARA
Oier Barragan
Abenduaren 26an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Unai.



BERGARA
Nora Blanco
Abenduaren 21ean
5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Garazi Plazola
Abenduaren 23an 3 urte.
Zorionak txirripitina.
Joanes eta etxekoak.



BERGARA
Cristina Souto
22an 8 urte. Zorionak!
Musu handi bat maite
zaitugunon partez.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua



BERGARA
Asier Sampietro
Urtarrilaren 9an 7 urte.
Zorionak txapeldun!
Malen eta Unai.



BERGARA
Lide Madinabeitia
Abenduaren 19an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Asier Laria
Abenduaren 30ean
8 urte. Urte askotarako!
Etxekoak; bereziki Eneko.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak
eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

izeder

**ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak**

943 76 71 05.
Arruriaga 2. BERGARA

- Bitxi guztiak berme-contrastearekin markatuta
- Gure erlojuak beti konpon daitezke


- Fabrikatzaileari zuzenean erosten diogu
- Prezioa egokitu egiten dugu

- Lantegi propioa: era guztietako bitxien konponketa eta transformazioa

telkar

Bitxiak eta erlojuak
Ibargarai 2
943 76 27 11

Zorionak!



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

BONO FOTOA



Erdi Aroko dorretxearen hondarren gainean XV. mendean eraikitako etxetik gertu dago iturri hau. Zein izen du etxe horrek?

MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

PINTORE BERGARARRAK GAUR


Pello Alberdi

EDU MENDIBIL

Elgetan jaiotakoa izan arren, Pello Alberdik (1958) lotura berezia dauka Bergararekin margolaritzari dagokionez, Rikardo Azkargortarekin eta Bingen De Pedrorekin duen hartu-emanari esker, batik bat. Arte Aplikatuak ikasten izan zen Bartzelonan, pare bat urtez. Soldadutzara joan, eta bueltan, pinturan gogo handiagoz murgiltzen hasi zela diosku. Gaur egun, Bearteko lokalean pintatzen du, eta azken erakusketa apirilean egin zuen, Durangon: "Pop artea gustuko dut, eta, askotan, publizitate irudietatik edo nik ateratako argazkietatik abiatuta hasten naiz lanean. Figurati-boa bestelako elementuekin nahasten dut nire lanetan. Bestalde, pastel tonuak eta kolore planoak erabiltzen ditut gehien".

Besteak beste, *Hasiberriak* saria irabazi zuen, 1988an, eta margolaritza zaletasun hutsa baino zerbait gehiago dela diosku: "Nire bizitzako zati garrantzitsu bat da, bizio moduko bat". Datorren urtean, pare bat erakusketa egin nahi lituzke. Oraingoz, Bergarako pintoreen erakusketan hartuko du parte Gabonetan.

"Pop artea gustuko dut; eta figurati-boa bestelako elementuekin nahasten dut nire lanetan"



E.M.

GALDEDEBALDE

- 1.** Nortzuk dira Agorrosingo kirol gune berriko proiektua egin duten arkitektoak?
A/ Pérez de Amezaga eta Muntaniola.
B/ Muntaniola eta Obiols.
C/ Pes Pérez eta Ansuategi Roca.
- 2.** Zein sari jasoko dute erakuslehioko lehiaketako bost irabazleek?
A/ 200 euro eta txapela.
B/ 100 euro eta afaria.
C/ 150 euro eta garaikurra.
- 3.** Bergara KEK pilota saileko bultzatzaile nagusietako bat omenduko du hilaren 27an. Zein?
A/ Julio Askasibar.
B/ Agustin Loidi.
C/ Gurutz Arrieta.



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzailen artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

PATXI UGALDE erandako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Patxi! Galderen erantzun zuzenak:
Bonofotoa: **Miguel Okina**/ Galde debalde: **1-A, 2-A, 3-A.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Delfin langostinoak

Kiloko 21/30.

10,37 €

1.725 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



IRAEGI
ASEGURUAK

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 20a / 139. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Uzarragaren mendeurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi izango ditugu

AINTZANE IRIZAR

Uzarragako eliza berria inauguratu zutela 100 urte beteko dira hilaren 28an; hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu ditu Uzarraga 2002 taldeak. Hilaren 23an hasiko dituzte ekitaldiak, beraldi batekin, eta abenduaren 28an amaitu, elizkizun batekin.

Iñigo Ramírez de Okariz antzuolar historiagilearen berbaldiarekin hasiko dituzte hilaren 23an Uzarragaren mendurrenaren ospakizunak. Hain zuzen, Uzarragaren historiaren gainean berba egingo du Ramírezek, Oloran etxean, 19:00etan.

Abenduaren 26an, berriz, Uzarragaren gaineko argazki erakusketa zabalduko dute, Oloran etxeko aretoan hori ere. *Uzarraga lehen eta orain* goiburua izango du argazki bildumak, eta, hain zuzen ere, abenduaren 29ra arte egongo da ikusgai, iluntzero, 19:00etatik 20:30era.

Azkenik, abenduaren 28an bertan, 100. urteurrena beteko den egunean, Uzarragako elizan meza egingo dute, 11:30ean. Juan Maria Uriarte Gipuzkoako gotzainak hartuko du parte elizkizuneari, San Bizenteko bikarioarekin, ibarreko artzapezarekin eta Antzuolako abadearekin batera. Antzuolako abesbatzak abestuko du meza horretan.

Elizkizunaren ostean, berriz, 12:30 aldera, Oihane Toledo soprano urretxuarraren eta Borja Rubiños piano jotzaile donostiarraren emanaldia entzuteko aukera izango dugu. Besteak beste, Aita Donostiaren, Usandizagaren, Bachen eta Schuberten piezak eskainiko dizkigu bikote horrek.

Eta, azkenik, 13:15ean, salda beroa eta ardoa eskainiko diete hurreratzen diren guztiei.

AUTOBUSA JARRIKO DUTE

Uzarragan automobilak aparkatzeko toki gutxi dagoela eta, autobusa jarriko dute antolatzaileek. 10:30etik aurrera ibiliko da autobus hori, eta Uzarragara eta herri artean ibiliko da. Automobilik ez hartzeko eskatu nahi diete herri-tarrei antolatzaileek, arazorik sortu ez dadin.



1902. urteko abenduaren 28an inauguratu zuten Uzarragako eliza berria.

AINTZANE IRIZAR

IÑIGO RAMÍREZ DE OKARIZ UZARRAGA 2002 TALDEKO KIDEA

Bidea eginez

Bat eginez gero Uzarragako elizak historian izandako gorabeherekin, testuinguru hura adierazi beharko banu, ez nuke ez lan erraza izango; izan ere, "hondamendia" eta "ekimena" hitz kontrajarriak datozkit burura. Liburu zaharretara joan besterik ez dago antzemateko, Uzarragako elizak edo parrokiak, ez duela asmatu non ezarri bere oinarriak. Izan ere, XVIII. mendetik hona dokumentuetan kontzeptu edo ideia errepikatuenak dira "lur jota", "jausteko zorian", "printzatuta", "itxi beharra", "tokiz aldatu beharra", "dirurik ez berre-raikitze" ... Baina, aldi berean, beste hauek ere azaltzen dira, auzotarren jarrera adierazten dutenak: "ekimena", "borondatea", "laguntzarako prestasu-

na" ... Beraz, lehia bizia izan da auzotarren eta elizaren nahi eta ezinaren artean. Eta orain? Ez du aurpegi onik ez elizak, ezta auzoak berak ere. Gogor eragin dio auzo horri modernitateak, hiri nahi izatea nagusi irten delako hiri eta herri binomioaren arteko bizitzan; baserriak hutsik edo jausita, bizilagunak adinean gora, neurri baten nekazaritza baztertuta...

Eta zer egin, antzuolar bezala? Prestatu diren ekintzetan parte hartu, Uzarraga auzoa (eta ez eliza bakarrik), gaitzat izango duten ekintzetan. Horrela, ondare guzti hau ez galtzeko eta bizirik mantentzeko zer egin hausnartu, antzinako auzotarrek egin zuten bezala (eta neurri batean egun egiten duten bezala).

zuten, eta zer jana eta zer edana ere egon zen Uzarragan.

Antzuolan bi parrokia daude: bata, herrian bertan dagoen Errukizko Amarena; bestea, berriz, Uzarragakoa, San Juan Bataiatzailearena. Uzarragakoa da, historiagileen esanetan, parrokia zaharrena. Uzarragan egon diren

elizek, baina, gorabehera handiak izan dituzte historian; izan ere, lurpean arbela eta buztina dira nagusi, eta horrek arazoak sortzen ditu Uzarraga inguruan. Horregatik, eliza bat baino gehiago berreraiki behar izan dute historian barrena; azkena, orain dela 100 urte inauguratu zutena.

LABUR

'Futbitoko 24 orduak' antolatu dituzte gazteek

Antzuolako Gazte Asanbladak *Futbitoko 24 orduak* antolatu ditu urtarrilaren 4an eta 5ean. Parte hartu nahi dutenek Mox edo Larrea tabernetan eman behar dute izena, hilaren 22a baino lehen. Hilaren 27an, berriz, 19:30ean, batzarra egingo dute udal-txean, zozketa egiteko.

Arrolak bi irteera antolatu ditu urtea bukatu eta hasteko

Urteroko ohiturari jarraituz, Aizkorriera mendi ibilaldia egingo dute urteko azken egunean: 08:00etan jarri dute hitzordua, plazan. Urtarrilaren 1ean, berriz, Arrolara joango dira: 09:00etan irtego dira, plazatik, eta salda eta txorizoa dastatzeko aukera ere eskainiko dute.

Bidaurrekoek lehen saria irabazi zuten Urretxun

Bidaurre baserriko Kontxi Izagirrek lehen saria eskuratu zuen, fruituen sailean, joan zen egubakoitzeko Santa Luzia azokan, Urretxun. Pozik azaldu zen Kontxi Izagirre sariarekin, baina, han izan ziren baserriar gehienek bezala, oso gutxi saldu zutela adierazi zigun.

Pilota Txapelketan elosuarra garaile, lehen mailan

Joan den zapatuan jokatu zituzten herriko Pilota Txapelketako finalak. Lehen mailan elosuarra nagusitu ziren: 22-11 irabazi zieten Oruesagastik eta Larrañagak Arbuluri eta Mendizabali. Bigarren mailan, berriz, Ormazabalak eta Iturbek 5-18 galdu zuten Sánchezen eta Pagaldairaren kontra.



Hiru antzular sarituak 'Berrigara'-n

Antzulako hiru neska-mutiko saritu dituzte *Berrigara*-k antolatutako Gabonetako Marrazki Lehiaketan. Adinaren arabera, hamar maila banatu zituzten. Hiru urtekoen mailan, Beñat Kortabarria izan da irabazlea; sei urtekoen mailan, Aitor Domínguez (goian, bere marrazkia); eta bederatzigarren urtekoen artean, Amaia Irastortza. Antzuola, Bergara eta Elgetako ikastetxe guztietako ikasleek parte hartu dute lehiaketan/A.I.

GABONAK

Umeak eta umeendako ekitaldiak izango dira nagusi Gabonetan

AINTZANE IRIZAR

Gabon bezperan, hainbat kantu kalejira egingo dituzte herriko kaleetan: eskolako neska-mutikoak, Antzulako abesbatzakoak eta euskal presoen alde arituko dira kantuan. Jolasparkea eta hainbat kirol ekintza ere egongo dira Gabonetan.

Gabon bezperan, abenduaren 24an, Olentzero eta kantu kalejira izango ditugu nagusi herriko kaleetan.

Goizean, Herri Ikastetxeko neska-mutikoak arituko dira kalez kale kantuan, Olentzero lagun dutela. Arratsaldean, berriz, bi talde arituko dira Gabon kantak abesten: batetik, Antzulako Abesbatzako kiñeak; eta, bestetik, euskal presoen aldeko kantu kalejira egingo dute.

JOLASPARKEA ETA KIROLAK

Urtarrilaren 3an, egubakoitzean, umeak izango dira berriro ere protagonistak; izan ere, umeendako jolasparkea jarriko dute egun horretan Udal Pilotalekuan. Goiz eta arratsalde egongo da zabalik



Kantu kalejira egingo dute eskolako umeek abenduaren 24an, goizean.

ARTXIBOA

jolasparkea: goizez, 10:30etik 12:30era, eta arratsaldez, berriz, 16:00etatik 19:00etara.

Bestalde, Antzulako Kirol Elkartek antolatuta, Xabier Barkeroren oroimenezko futbol partiduak jokatuko dituzte hilaren 28an, arratsaldez, erregional mailako taldeak, Bergarak eta Urolak.

Aurten, partidu hori jokatzen duten hirugarren urtea izango da.

Bestalde, abenduaren 26tik 28ra, gazteen arteko areto futbol torneoa jokatuko dute pilotalekuan. Alfonso Castro zenaren ize-na eramango du torneo horrek.

HERRITARREN HITZA / Patxi Olabarria · Jose Luis Elkororen laguna

Geure burua definitzen

Aintzaneke tarte honetan idazteko gonbitea egin azidanean, izenaren ondoan zer jarriko zuen galdetu zidan. Dakizuenez, hor goian, idazten duena definitzeko tarte bat dago. Sekula ez nion egin galdera hori neure buruari. Hitz batekin nola definitu neure burua? Nire aurretik idatzi dutenengan fijatu naiz eta denetarik ikusi dut: Gerbasio "Txistularia", Alaitz "Gizarte laguntzailea"...

Eta nik zer demontre ipiniko dut? Tanborreroa? Euskaltzalea? Tinbaleroa? Abertzalea? Kooperatibista?

Preso ohia? Egia esan, guztiak jarriko nituzke; azken baten guztiekin identifikatzen naiz. Herriko txistularientzat tanborreroa izango naiz, Bergarako bandakoentzat tinbaleroa, beste askorentzat preso-ohia... Espainiako askok, berriz, ilegala naizela esango dute. Abertzalea eta ezkertiarraren den edozein ilegala baita Espainiako legediarentzat.



"Gu guztion eredia zara, Jose Luis, eta ez ahaztu zurekin gaudela"

Horren adibide argiena atzo Madrilen gertatutakoa. Antzulon hain ezaguna eta hain maitatua den Jose Luis Elkorok epailearen aurrean deklaratu behar zuen beste zenbait euskaldunekin batera. Hau idazten nagoen momentuan ez dakit Garzonek zer erabakiko zuen; dena dela, benetan larria da gertatzen ari dena eta oraindik larriagoa iruditzen

zait beraien burua abertzaletzat dutenak ilegalizatzaileekin batera Bilboko kaleetan eskutik helduta ikusi behar izatea igandean.

Atzo Madrilen aurkeztu zirenetako asko Martuteneko espetxean ezagutu nituen, tartean Jose Luisekin elkarbizitzeko suertea izan nuen. Ezagutzen zaitugunontzat lankidea, laguna, abertzalea, enpresaria, korrikalaria, euskaltzalea,... Hori guztia eta gehiago zara, Jose Luis. Hitz batean definitzeko, gu guztion eredia zara eta ez ahaztu zurekin gaudela.

KIROLA

PARTIDUAK

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa

Abenduak 20, 19:30ean:

Olalde-Illunpe (eskuz, infantilak)

Olalde-Intxaurren (eskuz, nagusiak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 1 Eibartarrak 4 (Gazteak)

PILOTA

Herriko Pilota Txapelketako finalak

Oruesagasti-Larrañaga/

Arbulu-Mendizabal 22-11

Ormazabal-Iiturbe/

Sánchez-Pagalda 5-18

zabalo

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.
Tf. 943 76 60 89

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

**LEKY-BERRI
MERENDEROA**

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA



Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko abenduaren 20a / 123. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Datorren egueneko osoko bilkuran eztabaidatuko dituzte aurrekontuak

OXEL EROSTARBE

Abenduaren 26an, datorren urteko aurrekontuak eztabaidatuko dituzte zinegotziek. Oposizioko zinegotziek ez dute erabaki alde edo aurka bozkatuko duten. Lerro hauek idaztean, osoko bilkuraren ordua ez zegoen zehaztuta. Ziurrenik, eguerdian izango da.

EAJ-EAko zinegotziek proposatutako aurrekontuaren alde bozkatzea nahikoa izango da osoko bilkuran eztabaidatuko duten aurrekontua aurrera ateratzeko. Hala, alkateak proposatutako aurrekontuak direla-eta Bittor Gallastegi, Sebastian Arantzabal eta Xabier Basauri zinegotziek zein jarrera hartuko duten jakitea bakarrik geratzen zaigu.

Eztabaidatuko duten aurrekontua 3.559.640 eurokoa da. Iazkoa baino hiru bider handiagoa. Inbertsioek eragin dute aurrekontuaren igoera.

PAGATZA ETA TORREALDEA DESBERDINDU
Pagatzako industrialdea Lehenengo errekarara arte zabaltzea da

Aurrekontu proposamena

Abenduaren 26ko bilkura orokorrean eztabaidatuko dena	3.559.640 €
Iaz, EAJ-EAren eta Batasunaren aldeko botoekin onartutakoa	1.132.593 €

Iazko aurrekontua baino hiru bider handiagoa da aurtun proposatu dutena.

Inbertsio proposamenak

Pagatzako industrialdea zabaltzea	1.639.275 €
Espaloia Kafe Antzokia	265.659 €
Eguneko Zentroa	133.153 €
Mendi Nekazaritzako proiektuak (Uriarte auzora ura eramatea...)	78.131 €
Torrealdeko etxebizitzak	60.101 €
Berraondoko aparkamenduak ondo jartzea	42.070 €
Semaforoen proiektua	31.336 €
Arau subsidiarioak	27.346 €
Irisgarritasun plana	13.655 €

INBERTSIOAK, GUZTIRA	2.415.747 €
IAZ INBERTSIOEK IZANDAKO AURREKONTUA	251.619 €

aurrekontu proposameneko inbertsio nagusia. Inbertsio hori eta Torrealdeko etxebizitzena gainerako inbertsioetatik desberdintzen dira. Inbertsioetan aurreikusten den diru kopurua, Indus-

trialdean kokatzen diren enpresek eta Torrealdean etxebizitzak eraikiko dituen promotoreak ordainduko dute. Plangintza eta urbanizazioa egindakoan ordainduko dira.

Iban Arantzabal:
"Ziur nago Udaleko zinegotzi guztiak Espaloitari dagokion partidaren alde egongo direla"

Bittor Gallastegi:
"Inbertsioak egin beharrekoak dira. Egokiagoa litzateke diru sarreren arabera egitea"

KAFE ANTZOKIAREN ALDEKO APUSTUA
Aurrekontuetako bigarren inbertsio nagusia Espaloia Kafe Antzokia da. Proposamenean jasotzen denez, 265.659 euro bideratuko dira horretara. Goibeko Kultura

Elkarteko presidenteak, Iban Arantzabalek, GOIBEKOKALE-ri esan dionez: "Poztekoa da dirutza hori Espaloirako dela jakitea, elgetarrek eskertuko dute, duda bariarik. Oraindik negoziatio lan gogorra geratzen da egiteko, eta Goibekoko bazkideak guztiaren jakinean egongo dira. Udaleko zinegotzi guztiak alde egongo direla ziur nago, jakina, Espaloitari dagokion partidana".

OPOSIZIOAK EZ DU ERABAKIRIK HARTU
Aste honetan, batzarra egin dute oposizioko zinegotziek Patxi Basauri alkatearekin. Bittor Gallastegik GOIBEKOKALE-ri adierazi dionez, ez dute erabaki aurrekontuei dagokien bozketan zer egin: "Alkatearen aurrekontuetan, gure batzordeetatik egin diren proposamen gehienak kontuan hartzen diren arren, egongo diren diru sarreren aurrean zalantzak ditugu. Inbertsio ugari aurreikusten dira, eta egongo den diru sarrera zenbatekoa izango den ez dago argi. Inbertsioak egin beharrekoak dira. Egokiagoa ikusten dugu, ordea, horiek diru sarreren arabera egitea".

GABONAK

Olentzerok abenduaren 23an jasoko ditte umien gutunak

O.E.

Gabonak heldu dira. Honezkerok, Olentzerori eskatu biharrekuekin egindako gutuna idatzita eukiko dozue. Olentzero abenduaren 23an etorriko da horrek gutunak jasotzera. Gabonak dirala-eta antolatzen dan parkia urtarrillaren 2xan, 3an eta 4an egongo da zabalik.

Abenduaren 23an, Intxortatik etorriko da Olentzero Elgetara. 18:30ian, herriko neska-mutikuek idatzitako gutunak jasoko ditte Olentzerok, herriko plazan. Olen-

tzeroren etorrerriakin hasiko dira Gabonak dirala-eta antolatu dituen ekitaldixak.

ESKOLAKO UMIAK, KANTURA

Eskolako umiak abenduaren 24an kantura urtengo dira. Azken astietan jardun dabe Gabonetako kantuak entseiatzen. Guraso eta andereñuek be hartuko dabe parte. Batzen daben dirua, urtero moduan, Karnabaletako merienda ordaintzeko izango da.

GABONETAKO PARKIA HIRU EGUNIAN

Urtarrillan 2xan, 3an eta 4an egongo da zabalik Elgetako Gabone-

tako parkia. Kiroldegiko gimnasia eta pilotalekuan egongo ditte jolasak. Bestiak beste, arku tiroketia, ohe elastikua eta pilotaxe-puzgarrixa egongo dira. Horretaz gain, floor-ball, maza-ball, esku pilota, globo-flexia, mini-golf eta patin jolasetan jolasteko aukeria izango da. Eguneko sarreriaren prezia 1,75 euro da eta hiru eguneko bonuana, 4 euro.

AITOR GOROSTIZAREN POSTALA ONENA
Berrigara-k, GOIBEKOKALEK eta Goibekok antolatutako Gabonetako Postal Lehiaketan Aitor Gorostiza izan da elgetar onena.



Intxortatik etorriko da Olentzero, eta gero, plazan jasoko ditte umien gutunak.

KIROLA

Hogeita hamar ume Gabonetako Pilota Txapelketan

O.E.
Abenduaren 23an, 27an, 30ean eta 31n jokatuko dira Gabonetako Pilota Txapelketako partiduak. Guztira, 30 neska-mutikok eman dute izena. Hala, lehenengo hiru egunetan kanporaketak egin ondoren, abenduaren 31n, txapelketako finalak jokatuko dira. Aurten ere, Guraso Elkarteak eta Ozkarbi Pilota Elkarteak antolatu dute txapelketa.

EÑAUT ARANTZETA, GETXOKO FINALEAN
Amateur mailan txapelketa garrantzitsua da Getxokoa. Eñaut Arantzetak eta Jabi Oteizak txapelketako finala jokatuko dute abenduaren 29an. Elgetarrak eta zarauztarrak txapelketa bikaina egin dute. Finalurrekoan, esaterako, Lopez Aldai eta Zabala hartu zituzten mendean: 22-16.

Eta aurreko aste bukaeran, bigarren finalurrekoa jokatuzen: Albizurik eta Muniozguerenek 9-22 galdu zuten Eguzkitzaren eta Bengoetxearen aurka. Arantzetak eta Oteizak, beraz, haien aurka jokatuko dute finala. Txapelketari amaiera emango dion partidua abenduaren 29an, goizeko hamaiketan, jokatuko da, Getxoko pilotalekuan.

BOLO TXAPELKETAKO AZKEN TIRADA
Gabonetako Bolo Txapelketako laugarren eta azken tirada jokatuko da zapatuan. Gaueko hamaiketan hasiko den tiradan erabakiko da aurtengo irabazlea. Faboritoen artean, Rikardo Albizuri, Imanol Osoro eta Mikel Almortza daude. Hain zuzen, lehenak bost txirlo jo ditu orain arteko tiradetan, eta beste biek, launa.



Urtero moduan, herriko ume gehienek hartuko dute parte Guraso Elkarteak eta Ozkarbi antolatutako txapelketan.



Intxortan be amnistiaren alde

Urtarrillaren 6xan, gudari-
xei, presuei eta errefuxiauei omenaldia egingo dotse Intxortan. Urtero moduan, Elgetako eta inguruko herrietako presuen aldeko taldiek antolatuta.

Intxortako ekitaldia goizian izango da. Eguerdialde, saldia banatuko dabe. Gero, txalapartia eta bertsolariak entzuteko aukeria izango da. Ekitaldi politikua amaitzian, poteua eta bazkaria izango dira Elgetan. Bazkariko txartelak Haizean daren salgai. /O.E.

LABUR

Andoni eta Hiart irabazle Arrasateko Dantza Txapelketan

Aurreko domekan, Arrasateko Dantza Txapelketia irabazi zeben Andoni Elortzak eta Hiart Bolinagak. Honekin garaipenonekin, bukaera ezin hobia emon dotsa Elgetako bikotiak aurtengo saieui.

Andoni eta Hiart Euskal Herriko dantzari onenen artian dare. Dantza kontuetan jardun dabeneke, behintzat, hala diñue. Datorren urtian be onenen artian ikusi nahi ditugu. Horretarako, gogor jarraitu biharko dabe, oin arte moduan. Zorionak!

INGURUMENA

Energiaren agentzia lokala sortu nahi dute

O.E.
Eguzkiko kide Alberto Frias Elgetan izan zen aurreko egunean. Maya ingurumen taldeak antolatu zuen berbaldea, eta herri mailan energia alternatiboak garatzeko dauden aukeren gainean jardun zuen Alberto Friasek. Behin baino gehiagotan azaldu zuen energia alternatibo eraginkorra eta merkeena energia bera aurrezteko dela.

Eta energiaren agentzia sortzearen garrantzia nabarmendu zuen, ingurua ondoen Udalak eta herritarrek ezagutzen dutelako.

UDALAREKIN NAHIKO HASERRE
Maya taldeko Rebea Uberak GOIBEKOKALeri adierazi dienez: "Urtebete da energia alternatiboak aurrera eramateko plangintza Udalari aurkeztu geniola. Denbora dezente goaz ingurumena dela-eta plan bat martxan jartzeko eskatuz. Ingurumenaren gainean Elgetako Udalak interesik ez duela nabarmendu nahi dugu. Energiaren agentzia lokalean beharrezkoa da Udalaren parte-hartzea. Udalarik ez like diru kosturik ekarriko, eta energia aurrezten hasteko lehenengo pausoa izango litzateke".



Maya ingurumen taldeak antolatuta, Eguzkiko bozeramaile Alberto Friasek berbaldea egin zuen Elgetan.

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Gabonetako
jaialdia,
1968. urtean

Gabonak gainean ditugula-eta, sasoi baten herriko umeek Gabonetan egin zuten jaialdi bateko argazkia dakarkizuegu oraingo astean atal honetara. Orain dela 34 urtekoa da argazkia, 1968. urtekoa, alegia.

Gurasoen Elkarteak urtero antolatzen zuen umeen jaialdia, Gabonen inguruan, eta hainbat ume taldek eskaintzen zituzten ikuskizunak egun hartan. Hain zuzen ere, Lapatzak errepide ondoan duen garajea egiten zuten Gabonetako jaialdi hura. Nahiko toki txikia zen, baina jaialdi polita antolatzen zuten.

Oraingo astean ekarri dizuegun argazkia, esan bezala, 1968. urteko Gabonetako jaialdian ateratakoa da. Hala, sasoi hartan, 6-7 urte izango zituzten argazkian azaltzen diren mutikoek. Badirudi egin zuten emaldiaren une baten ateratako argazkia dela, eta kantuan eta dantzan ari direla.

Hona hemen argazkian, taula gainean, azaltzen diren mutikoak,



ezkerretik eskumara: Bittor Arbulu, Juan Arbulu, Joseba Iparragirre, Mikel Larrea, Nikolas Zabalo, Gotzon Iparragirre, Rafael Carmona, Joseba Lamariano, Jose Miguel Egaña eta Jose Manuel Aranburu.

Argazkia: Purita Zabalo

ADI IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ANTZUOLA

Maristetako
frontoia

Oraingo astean, 1944. urteko argazki bat ekarri nahi izan dugu tarte honetara. Maristetako frontoia-ren argazkia dugu, hain zuzen ere. Mutikoz beteta ikusten dugu pilotalekua. Maristetako ikasleak izango ziren, segurue-na, argazkian azaltzen diren mutikoak. Maristenak izanda-ko hainbat eraikin bezala, frontoia ere bota egin zuten, eta, hala, etxebizitzak eraiki zituzten hantxe.



1944 Maristek garrantzi handia izan dute Antzuola-ko historian eta bizitzan. Hona hemen erlijioso haien frontoia.



2002 Gaur egun Eguzki auzoko etxebizitzak dauden tokian zegoen frontoia. Frontoia bota, eta 1977. urtean, etxebizitzak eraiki zituzten.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



Eskuko poltsa
NINFA JANTZIDENDA
Ibargarai 6



Modin pijama
NEREA LENTZERIA
Simon Arrieta 1



Sensi Armani perfumea
EGILUZ PERFUMERIA
Irizar 3



Bóboli jertseak eta prakak
MARKELINE UMEEN ARROPA
Herrilagunak 6



Sony kamera digitala
ARGAZKI
Barrenkalea 16



Columbia jaka
XAMARTIN KIROLAK
Ibargarai 20



Lora zentroa
GOROSTI LORADENDA
Matxiategi 3


OPARI BERRI ON!



Figfort lentzeria
GRACIAN MERTZERIA
Bidekurutzeta 6



Lepokoa eta eskumuturrekoa
HARAIA ZILARREZKO BITXIAK
Boni Laskurain 4




Genfins alkandora eta prakak
ZUBIKUA JANTZIDENDA
Barrenkalea 24

ARREGI AROZTEGIA




PVCzko
LEIHOAK



Zatoz gure
erakusketa handitu
eta berritura.
Bidekurutzeta
38an gaude.

HORMA ARMAIRUAK



SUKALDEAK

ATEAK ETA
LEIHOAK



BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03



*Eraman
dotoretasuna
eta plazerra
zure etxera*

*Bainu altzariak eta
osagarriak.*

*Hidromasaje bainerak
eta kabinak*



gelatzu

Zubillaga auzoa 1.
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22,
Faxa: 943 78 15 51